



Karlos Elgezua'ren «Enbelta bertsolari».

Karlos Elgezua irudigillea

Euskalerririk ez du izan bere denboran irudigille askorik. Gutxi oien arteko bat degu Karlos Elgezua Lasuen elbarrara. Eibarko erriak antolatutako «Exposición de Artistas Eibarreses» dalako erakusketa, asmoz, mende oitan joan zaizkigun eta nauhitosunera eldu diranen omenez egina da. Aizen arteko Zuloaga eta Olabe il ziranetatik eta, beste zenbaiten artean, Elgezua bizirik irudigillea.

Karlos Elgezua, erakusketa onetako irudigille bakarra (besteak, guztiak, pintorak bai dira), eta bear bada Eibar'en ezaugu dugun bakarra, 1936ko azaroaren 3'an jaio zan. Auztorarik etorren artira griaaturik bere doai bereziki inor konturaten ez zan denboran, mutikotxo bat zala, eskuratzen zituan paper guziak kartazet orbanzen zituan. Orduan ziran dibuji eskolelara jotzen zan bere gogoa obeto landu nairik, leenago Zuloaga ta Olabe jotzen zidan bezala.

Koskondur, irudigillea izan nai zuen eta ori aditorea eman zion zion bere aitari. Bere aita drota zan, ebanisteria baten jabe zan zurgilla eta ez zuen ongi ikusi semearen joera. Seme bakarra zenez, bere jarraila nai zuen zurgintzan. Ogi bidetako errozi auzgaitik, galzorian izan zuen irudigillea. Leenagoz aitarekin asi zan ebanista ikusten, baina nolabait konpondu zan bere asma aurrera eramete. 16 urtekin lortu zuan Gasteiz'era joatea, zurlanean trebe ziranekin ikastaroak egiteko. Muebleak apaintzen zituenetako bat artu zuan maixu. Egunkero errial bat ordaintzen zuan, eta, trukez, egiten zituan zur-lanak beretzat. Oraindik ere gordetzen ditu orduan egindako lanak, asko maitatzen ditu orduango aurrerapenen oroz eta batez ere artegintzarako izan zuen aketasun oroz.

Bere zaletasunaren adigarria dugu bere soldaduzkako denbora ere. Bilbon egintzen soldaduzta, orduan izaten ziran kuotakoa zan, eta ordu asko libre izaten zuenez, Artes y Oficio'sko eskolan sartu zan irudigille ikasle. Basterra maixuzat zularik. Ura izan zan irudigilletzako lehen asiera.

Eibarrera itzultzean joat-ke asi zan, al zuan ordu libre guztietan, irudigintzan. 1928'an, Gipuzkoako aldundegiak eriatutako artista berrientzako lehenbiziko saria irabazi zuan. Bere alderako aburu onak izan zituan eta Karlos orduan sentitu zan irudigille bezala nagusitua. Paris eta Erroma'ra joan zan museoak ikustera eta orduko eskolan berri jakitera, bere irudigintzari obekuntzak hillatu nairik.

Geroztik zenbait erakusketa egin zituan, bertan Eibarren, Donostian eta Bilbon. Donostian azken erakusketa egin zuanean, Karlos Ribera'k egin zion kritika berezi bat, non zion: «Elgezua ondo landutako artista da, bere ekintza lanaren jabe dana, eta egizko nortasunarena...»

Bere era, klasiku erroka da: Greziako arte zaarra gustatzen zaio, eta baita errenazimentuko Migel Anjel eta Donatello; eta, gure mendean, Julio Antonio ta orainuk il dan Vitorio Macho.

Azken urte auztan Gipuzkoako Astigarraga errikoan bizi da. An du bere etxea eta bere langela.

Karlos'ek badu beste doai berezi bat ere: euskeltzaletasuna. Alkar ezagutzera eta adiskidetasun zintzo batera eraman guzuzen doaa dugu auzte. Arduratsu jarraitzen dan Karlos'ek euskerari buruzko guztia.

Berakin izan ditudan solasetatik oartu nintzan bere lanik berezienak eta maitatuenaik zeintzuk dituan: Atano III-gna, Zuloaga pintorea, bere aitaren erretratoa, Enbelta bertsolaria, Ziriako Agirre medikua, Orbearen erretratoa, Mendigoizalea eta Getaria'ko parroikian dagoan Kristoa.

Flores Kaperotxipi'k, bere Arte vasco liburuan zion, elbarrar oni bidez zenbait landorioren ondoan: «está empeñado en que todo lo que lengua que decir, lo diga en sus esculturas». Baina guk uste dugu orrela bear duela ganorazko artista batek, bere lanarekin mintza. Ta ez salerosle bezala iraulti. Ezin badugu konprentitu edo ezin badugu baliatu, okerra ez dator egillegandik. Berak, bere lana uzten digu, guk eta geroak juzgatzeko.

Elgezua, oso errealdide zale da, bere lanen bidez eman du barnetikako pentsaera ta sentiera, zintzotasunik garbientan. Au ez da ez uned eta ez lekua gauko eraberriko bideekin konparazioa egiteko. Gaiñera, bere formalista izanaren, abegi ona egiten daki abstraktoari ere artearen esperientzi aldetik. Ongi iduritzen zaio bikoitzak bere barnetikako kezkatik dagozkion sortzea eta eskeintzea. Berak berezik eman duan bezala.

Karlos Elgezua zoriontsu sentitzen da bere gogozko bidetik bizitza eskoni al izan duelako. Ta, ez da gutxi norpore zuzetasuneko ogibidea ta bizi-bidea lortze au. Batez ere bide au edertasuna sortuz jardutea danean, gure irudigille onen bezala.

I. SAN MARTIN

ABESTI BARRIAK EUSKERAZ

Ondarrutar Argoitia anai-arrebak 90 konzierto eman dituzte ta beren lenengo dizkoa laster zabalduko da

Ondarra'n jayo ziran Irune ta Andoni Argoitia, ta an bizi dira Velarde kalean, 4s.

Urte t'erdi dira, euren kitarra ta bandurria artuta, Euskal Erri zabalean abestuten dabilazela, ta ZERUKO ARGIA'ra-ko alkar-izketa bat eurekaz enkiteta interesateca izango dala iruditu yai.

—Zenbat nebarreba garie?

—Gu biok, bakarrik.

—Urteak?

—Nik 16 —dizozku Andoni'k— ta nire arrebak 18.

—Zenbat bidat jo dozue jendearen aurtean urte t'erdi ontan?

—Ori gaitz da esatea, ez dogu ezer apuntatu ta.

—Baña, gitxi gora bera?

—Imini egizu 90 konzierto.

Nik entzun dodaz abestuten Larronde'n, Sondika'n eta Sopelana'n. Aurten, euskal jai uskotan egon dira abeslari. Ez dogu oker iztziko esaten badoguz 200.000 personatik gora izango dirala Argoitia nebarrebak abestuten entzun dabezanak. Baña jarraitu daigun galterak egiten.

—Zelako abestiak abestuten dozuez?

—Batzuk, euskal kutsukoak, emen sortutakoak, eta al dala, batriak edo gitxi ezaunak. Besteak, munda zear fama artu dabenak, edo politik eta sentikorrak iruditueta yakuzanak.

—Norik imintzen dantzuez iztak?

—Dukizuez, guk euskeraz bakarrik abestuten dogu. Euskerazko itanik, batzuk Agustin Zubikarai'k imintzen dauzku. Beste batzuk, beste adixkideren batzuk (Lurdes Triondo'k eta abar). Azkenez, abesti askoren iztak guk, bion artean imintzen doguz.

—Egin dozue diskorik?

—Egun batzuk barru zabalduko da egin daukuen lenengo.

—Zelatzuk abesti dagoz disko orotan?

—Diskoaren alde baten, iru

ritmodunak, dantzatuak al izateko: «Txoriturnak sokan» (erderaz «Marionetas en la cuerda»), «Gaurko gazteak» (Halianoz «Cuore Moto») ta «Ames, ames» (ingelesez «Sealer»). Beste aldean: «Ajarguna», Lurdes Triondo'ren iztak eta Alta Otaño'ren musika, «Eperaren Kantata» euskal abestia ta «Maitasun Itzak» (katalanez «Paroles de Amor»), Joan Manuel Serrat'ena).

Nik orain emen puntu ta apartekin egin netke, baña, ta parkatu Irune zozter geyago esan bear dot, «txoritxu» baték kontan daustana, Bearrezkoa dala esatean uste dot, zuen euskaltasuna bere lekuan iminteko.

Au da na lengo baten kontan neustien jasorikoa.

Ondarruko plazan, igande arratsalde baten, klokoan musika jotzen eta gaztedia dantsan.



Ezkerretik eskubira: Andoni ta Irune Argoitia ta eurekaz, Txabi Billaberde, VOX dendako usaba ta «Soroak» taldeko zuzendaria.

—Len esan dogu 90 komierto gitxi gora bera emon dozuez. Ia ta jakin gura senduke non izan diran.

—Orabarte: euskal jayelan geyenak, errietan. Uri anditara ez gars jenn. Gabon egunan (datorren ilaren 24'an), Bilbo'n abestuko dogu lenengo, Santiago Apostol teatloan.

Irune ta Andoni Argoitia'k musika asko dante. Biak dira txistulari onak, eta txistua jotzen irakasten dabe ondarrutarrai, Orreaz gainera, Irune'k kitarra ederto jotzen dan, baita bandurria, Andoni'k, bandurria, klarineta ta armonika. Mutillak, batzillerato 6'garren urtea ikastean dabil Gasteiz'eko Manuel Iradier Ikastolan.

Eta orain, Irune'ri galdere espzial bat.

—Noblork?

Irriparrez erantzuten dauku:

—Ez. Ez nik eta ez Andoni'k.

Onetik dira Irune ta Andoni Argoitia, Eurekaz itz egitea benetan dala asagiezketa, ain di ta ulal ta jatorrak.

An egoan Irune, beste ondarrutar neskatilla batzuk eta olako baten mutill bat urreratutetan yake ta Irune'ri galdetu:

—Ballamos?

Irune'k bere inguruen egozan adixkideak, irriparrez, galdetu eutsoren, euskeraz:

—Zer esangotsat ba?

Mutillaren arpegian beste espresio bat nabaitu zan eta arin mekeari erantzuna urten baio len:

—Mesedez? —esan eutsori irriparrez.

Eta Irune'k, euskeraz erantzuten, ez eban geyago dudarik euki.

Mutilla txalapartari famatuak diran Aritza anai gazteena zan, eta ordutik ona adixkide euki.

Irune ta Andoni Argoitia adixkideak: Jarraitu aurrera zuen abestinkaz. Olan euskerari lagunduten dautozue, ta euskeraren bidez, Euskal Erri'ri, Jarraitu olan, gure gaztediarentzat ejenphu ona izaten.

Xabier GEREÑO